

# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 2968

*AGINDUA, 2025eko ekainaren 13koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, «Aranzadi Zientzia Elkartea» (Gipuzkoa) Euskadiko Museo eta Bildumen erregistroan inskribatzeko dena.*

Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan inskribatzeko espedienteaz aztertu dugu, honako zuzenbide-oinarri hauetan funtsatuta:

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari dagokio, agindu bidez, «Aranzadi Zientzia Elkartea» (Gipuzkoa) inskribatzeko espedienteaz ebaztea, halaxe xedatzen dute eta Euskadiko Museoen abenduaren 1eko 7/2006 Legearen 9.2 artikulua, ekainaren 21eko 132/2011 Dekretuaren 11.1 artikulua (Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko araudia onartu eta museo edo bilduma bat «Euskadiko museo» edo «Euskadiko bilduma» dela onartzeko aitorpena arautzen duen Dekretua), eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretua.

Bigarrena.– Horretarako legezko ahalmena duen pertsona batek sustatu du espediente hau, eta espedienteari funtsezkotzat jotako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio. Bereziki zaindu dira Euskadiko Museoen abenduaren 1eko 7/2006 Legearen 9. artikulua eskatzen dituen betekizunak, bai eta ekainaren 21eko 132/2011 Dekretuaren 11.1 artikulua eskatzen dituenak ere (Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko araudia onartu eta museo edo bilduma bat «Euskadiko museo» edo «Euskadiko bilduma» dela onartzeko aitorpena arautzen duen Dekretua).

Hirugarrena.– Euskadiko Museoen Aholku Batzordeak «Aranzadi Zientzia Elkartea» (Gipuzkoa) erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman du, horrela betez Euskadiko Museoen abenduaren 1eko 7/2006 Legearen 9.2 artikulua xedatutakoa eta ekainaren 21eko 132/2011 Dekretuaren 11.1 artikulua xedatutakoa (Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko araudia onartu eta museo edo bilduma bat «Euskadiko museo» edo «Euskadiko bilduma» dela onartzeko aitorpena arautzen duen Dekretua).

Aipaturiko lege-xedapen horiek eta bidezkoak diren gainerako arau aplikagarriak ikusi ondoren, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak hau

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– «Aranzadi Zientzia Elkartea» (Gipuzkoa) Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroan inskribatzeko agintzea, gaurko datarekin eta RMC-0054 erregistro-zenbakiarekin.

Bigarrena.– Inskripzio hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Administrazio-bidea amaitzen duen aipaturiko Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari hilabeteko epean, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera kontratua,

2025eko uztailaren 2a, asteazkena

edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan bi hilabeteko epean, baita ere jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 13a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA.